EUZKEL--ATALA

ZAZPI TA BOST IZKINDUN NEURTITZ-AHAPALDIAK

Zazpi ta bost izkindun neurtitzak alkar, euskal olerki ederrenetakoak egiten dituzte. Euskeraz (*acento*'rik ez izateak au egingo du noski) neurtitz laburrak luzeagoekin elkartzea egokiena dala bayeztatzen da orrekin.

Lendabiziko ahapaldia (zazpi ta bost izkindun neurtitzak osatutakoa), aldiz-aldiz zazpidun bat ta bostdun neurtitz beste bat dituana da. Lengoan nik esandako euskal-olerkien araua betetzen du gañera: *neurtitz bikoitzak bost izkindunak ta amayera berdiñekoak, ta bakoitzak zazpi izkiñekoak ta amayera berdingabeak.* Amayera ber-

Ontara egindako lauko bat ara:

Oso politak dira
zure begiak,
anitz bikañak eta
maitagarriak.
(Satarka.)

Duan erreztasun aundiarekin Oxobik neurtitz guztietan amayen berdiñak egin, ta e zaldizka bata bestearen nuen, launakakoak berdinduta baña, zazpi ta bost izkindun neurtitzetan zortziko eder bat ere bai demagu. "Belea ta axeria" izena duan *Alegia* da. Neurria bai, aldizka datoz. Ara, adibidez:

Behin bazen bele bat;
bele bat beltza,
pika bezin ohoina,
bainan zozoa!
Artu zuen gasna bat,
gasna bat gaitza,
araï esnez egina,
bainan gozoa.
(Oxobi.)

(Gasna, gazta edo gaztaya da.)

Abekin alkartu bear dan beste olerki eder bat ba da. Au Baroja Serafin'ena. Onetan, Oxobi'renean bezela, beste izkuntzetan oi diranen olerkiak gogoan izan dirala ikusten da. Baña bertan itzalduta euskal arauak agertu.

"Arrats izugarria" izena du olerki onek, ta Donostiak izan zuan azkenengo erreketa aundiaren (1813'g urtean) negar-oroimenaz egiña da. Bereziki esan bear detana, nik irarrita 12 ta 5 izkindun neurtitzetan ikusi detala da. Amabi izkindun neurtitzak bi dira, ordea: zazpidun bat ta bostdun beste bat. 12=7+5. Guztitan onela zatitzen dira, ta orduan, ta 12 izkindunak balira ez, amayera berdiña bera dutenak neurri batekoak dira.

Zazpi ta bost izkindun neurtitzetan idatzita or daukazute Baroja jaunaren olerkiak dituanetako ahapaldi bat:

Itsasotik sortuko
lanbro dokaitzak,
burrunbadan igoak
turmoi tartean,
ziran ekaitzak,
eta zartatu orduko
tximist kolpean,
odoi gañeko labe
sutu artatik
jasa ta ujola
eurizko errola,
amiltzen zan lurrera,
iduriturik
ixurtzen ote ziran
sua ta odola.
(Baroja.)

Beste euskal-oleskari onenetako batek, 'Arrese' Emeteri'k, ba du zazpi ta bost izkindun neurtitzetan egindako lan bat. "Agur, Euzkadi" du izena. Olerki onek ez ditu iñoiz amayerak berdinduta. ¿Arana-Goiri'k esan zuanagatik ote da? "De aquí que el verso libre, o sin consonancia perfecta ni imperfecta, sea el más apropiado al Euskera: no obstante, no lo he visto usado aún por ningún versificador", zion 1896-urtean.

Arrese'ren olerkiak onela amaitzen du:

Begietan nik orain
gau illunaren
illun sakona;
oroitzez baña
gogoan argi!
Agur txoko maitea,
ene laztana...,
biotz-biotzez agur,
¡agur, Euzkadi!
(Arrese.)

Azkeneko lau neurtitzak eradun lauko bat dira. Gañerako olerkiaren neurtitzak ez dute ahapaldirik egiten.

BARAZAR.

OSALARI BAT JOSU'REN BAKALDUNTZEA OSPATZEN

Jayotza baten gaba galduta
Eta eguna lotuta
Basotxaunotxu ontara ostar
Illundukeran elduta,
Arrastargitan eta bakarrik
Jauna Zurekin batuta,
Ospatzen dautsut Bakalduntzea
Txirotasunaz jaituta.
Ni bere Jauna emen natortzu
Bakalduntzea ospatzen
Eta gogorik onenaz nere
Gudaritzea opatzen,
Eta biotzez Zeu maitatzeko
Maitetasuna eskatzen,
Bizi neiten Zeu maitatzen eta
Aintzatzen eta gurtatzen.
¡O Bakaldunen Bakalduna ta
O, Alen Ala ta Jauna!
Basotxaunotxu onetan bere
Bada nok ausi belauna.
¡O neure Jauna ta Jaungoikoa,
Iraun guztien irauna!
¡Arren, ba, Zeugaz, gura dot neure
Geroko gerok dirauna!
BIZKARGI.

Utsik ba da parkatu, eziñ irakurri dogu ta.

ILLEN EGUNA

Udazkena, nerekiko, urte-sasoirik ederrena. Ez da udara ,ez-eta negua, bai bien artekoa; ez du udararen bero kiskalgarria, ez-eta neguaren otz mingarria. Landa-ibarrak xamur ageri dira. Eguzkiak urre zarraren itxura dauka. Nik ez diet galdetu nere irakurgaietako maitaleeri biotzeko lera ori noiz-eta biziago nabaritzen duten; baño udazkenean egingo nuke, batez ere alaitasunera baño itundasunera emanagoak baditiran.

Udazkenean, urrutiko gauzak gogoarazten digun urte-aroan, illen eguna izan oi dugu. Osto gorriak zintzilik egoten dira adarretan ta noizbait bizitzari agur esanda, buruko zentzua galduta, bai-ta-ez, bai-ta-ez, erortzen dira. Gorria zana beltza biurtu. Aizea etorri, erabat artu ta zurrungilloka an daramazki. Urrena neguko elurrak estali eta akabo.

Gaur illen eguna da. Nere erriko kaleetan jendea ba'dabil goiz asko. Zeia, merkatua, lorez josia dago. Andreak eskutsik sartu ta ,edo gurutz oria, ala burestun morea dakarkite; berak beltzez jantziak daude. Zalgurdiak erriko kaleetan barrena nabari-nabari dira. Zezen-plaza alderantz abiatu ta gero eskubira jotzen dute. Bide berberetik zezen-plazara ala ildegira. Jolas-egunetan iñork ez du elizarik ikusten; baño gaur bai, elizak ageri-ageri daude, bide erdira ateratzen dirala esango nuke. Urte guztian apaizeri agur ez esanagatik orain txapela gogoz kenduko lieteke askok.

Gizonak ba'ditu lan-egunak eta opor-egunak; ba'ditu egun alaiak eta egun itunak; ba'ditu dantza-egunak eta makur-egunak. Illen egunean eta aste gurenean, makur-egunak izaten ditu. Urrutitik ikusten ditu eta garaitz asten da bizkar-ezurreko nagiak kentzen. Eta, nekez ba-da ere, uztaiari aldez beste egiten dio. Kontu gero bear baño len altxa ta uztaiarekin bizkarra urratu. Kontu gero aurrez-aurre artu ta uztaia bota. Iñauteriak gaiztoak asmatu ditu.

Baño gaur illen eguna da. Udazkeneko egun onetan bizi diranen zalgurdiak taka-taka dijoaz aldapa gora ildegirako bide luzean. Lurrean orbel asko dago. Baserri baten kebidetik lurrin urdiña igotzen da. ¡Ez nuke nai bizi ildegiaren ondoan!

Noizbait, ala ere, on lizaiguke eriotzaz gogoratzea. Gero barkapena eskatu-bearrak egintza txarretatik aldendu gintzaizkike. Eringaiaz gogoratzeak geiegi jatea eragotzi lizaiguke. Tarteka-tarteka geldialdia ondo legokiguke "txoroa buruan ta ibilli munduan" esan ez dezaiguten. Edozein laisterkiñak bezin ongi, aldiz-aldiz, balaztatu-bearra izaten du gizonak.

Ildegia, illen erria. Ildegi onetan datzate len errian zeudenak. Ildegikoak len errian izan ez balira, errian ez zan bizidunik izango. Ondorengoak utzita joan ziran. Orain ildegian "bizi" dira len errian aritzen ziranak. Aspaldiko Urli-enekoak or daude, Sandi-enekoak ere bai, orobat Berendi-enekoak. Guztiak datzate. Lo daude. Ez nastu betiko loa artu tunenen pakea. Jainkoaren pakea bego berekin.

Ildegia, illen erria. Arresiz inguratutako erria da, len, guda-aldietan, bizidunen erriak izaten ziran bezelakoxea. Nere erriko ildegian illek eliza bat dute. Illen errira sartzeko aurrenekoz elizan sartu bear izaten dute. An, nonbait, etorriberriari jaioberriari bezela bataioa ematen diote. Ba'dituzte etxeak, kaleak, arbolak eta txoriak Aberatsen etxeak bereala ezagun dira. Baita txiroen xulo illunak. Illen errian ez ditu iñork uxatzen txoriak. Pakean daudela-ta ez dute urizairik bear. Orrez gañera, gure aldean askok burutsuagoak dira. An ez da tarrantarik ibiltzen; illen bat "il" baizitekean.

Gaur illen eguna da. Ildegiko atarian zai daude zaldiak. Udazkenean egunak moztu egiten dira ta arratsaldean aizea oztu egiten da. Jendea ba'dabil arraen gisa illobien tartetik agur esateko asmotan. Illen eguna egun ituna da. Smeak amari negar egiten dio, amak semeari; senarrak emazteari, emazteak senarrari. Argizai-tanto beroaren ondoan begi-malko epelak daroz... Santa Klara-kalean marmo-arrizko gotzon edo aingeru begi-begizkoa dago. An dijoan guztiak irri xamurra dagio. Izan ere, biotza nekearen nekez gaxo dagoanean zer bat dala-ta, pitiñena ere, alaitu dezake. Osasungarria zaio.

... ...

Mutillek arratsaldean ildegi-bideko zumarrak zenbatu ta gaztain erriak jaten dituzte. Kaleko atso moskor ura gogoratu zaie. Kozkoek ikaratu egiten dituzte. Protestantien ildegi txikia ikusi gogo dute. Protestantien ildegi txikian arrizko liburuak ikusten dira, Goizper-esakunakin. Izen-idazkunak ingelesez jarriak daude geienak. Mutillek gutxi itzegiten dute. Ta txiñalka ateratzen dira protestantien ildegi txikitik, lurra idiki ta deabruak zanko batetik tirako ote dien bildurrez...

ANABI.

AZKOITI

LOYOLA'N

Iganaïan ospatuko da Josu Kisto bakalduna eguna, arratsaldian izango da eleiz jai aundia txonitza ta ibildeunaz, urtero bezela notin asko elduko da bertara, zer esanik ez dago Josu erregia aitortu ta gurtu eta bere onespena artzera.

NASKALDIA

Araba'n Murgia udara igarota etxeratu zaigu bere sendiaz gure lagun Mendizabal Perdiñanda, ongi etorria izan zaitez.

IZPAR BELTZA

Ikurtunak artuta gure Jaunak bereganatu du Alberdi Pantzeska aldun izan duaren emazte Aizpurua Nekane G. B. irakurlia otoi aren gogo alde. Gorputza obiratze laguntzera eta eleiz otoitzetara izugarrizko notintza eldu zan asteazken goizian, bertan agurtu giñuzen Aita Donosti Buruñurduna gure lagun onak diran aldun izandako Urreta Mikel, Zelaya Bitoren ta Gibert Joseba, Vial Bingen eta beste asko.

APRIKAN

Gudaritzan egon da eldu da bere uri maitera, gure lagun Iguaran Eukeni'ren seme Joseba. Asko poztutzen gera.

DEUN KISPIN

Zapata-gilleak ospatu dabe bere eguna, goizian txadon nagusian euki zuten jaupa, bertara bildurik asko.

Deun Pantzeskaren irugarrendarrak datorren igandian eukiko dute eleiz jaiak goizian Jaunartze orokorra eta gero jaupa nagusian txonitza Aita Bengoa Pantzesdarrak eta amaiturik Bederatzi urrena Aita Pantzeska Done-arena.

EGI-ALDE.

BILBO'TIK

Idazki onetan eskabide biaz nator biyetatik bat zuzenduko baneu pozkarriyaz.

TXISTULARI BARIK

Sarri egon gara pentsetan zergaitik ete dagon Bidebieta edo Basauri lako erri aundiya txistulari barik. Urte bete baño geiyago izengo da Bilboko neska-alcra bat igande arratsalde guztietan erri orretako erromeriyara joaten garila eta ondio sekule eztogu aren soñurik entzun. Aurtengo udan izen gara Etxebarri, Galdakao, Basauri Deun Mikeletan eta orretako jai guztietan eta danetan ¡amaika jantza eder eiñ be bai tanboliñ soñuan! baña Bidebietan ezin eiñ eztago ta; ba igaro dan igandean eta aurrerakuan izen dire erri orretako jai andienak eta egonda au musikia ugari, bai bertakue eta Galdakaukue; baya guk esaten deutsegun moduen danak baltsiorakuek eta gure jantza garbiak iñun ez dira agiri izen.

¿Ezta ba ori tamalgarriya? ¿Zuek Basauritarrok, zer egiten dozue, txistulari bat eskatu barik albo erri txiki guztietan be badeuke?

Emen gara ba erri orretan bitzet urrutu arteko goguaz jantzan egingo geunkezenak.

EA'TARRARI

Emen naukazue ba eatar maitiok iya begiyak be urten biarrin egunero Euskel-atala irakurriten dotanian erri orretako idazkirik agertuko ete dan, baña sekule ezteukot orren pozkaririk, ¿Agaztute alzagoze izparringi onetako Euskel-atalaz danok?

Nik badakit or euskeltzale zintzo asko zagozena eta len bazan or neskatilla bat be, idazki politak egiten ebazana; baña isildu de ori be; eta oñ emen nator ni zuekana gomutau eraiten zelan emen gaozen erri orretako idazkiyak pozik irakurriko geunkezenak, neu aurrerengo nazela ori Bilbotarra izanda ba berton jayua naz baña gurasuak Bedarutarrak dodaz eta ortik dire on be neure senide maite guztiek alan ba inguru orretako barri guztik jakitiagaitik edozer egingo geukena.

¿Agertuko ete zarie ba danon arten asko zarie ta, bat geiyago ezpada be, asko barri guztiekin noizik nozera idazkitxuak argitalduteko? Ori da ba eskatuten entzuena biyotzez orkua dan bilbotar batek.

Aurten orretara juen enazan ezkero, datorren astelenen deuket esperantzie Gernikera juteko ortik datozen senide eta lagun guztien artin ordu alai batzuek igarotzera. Danori ba agur astelenerarte au ikusiko gara alkar da zuegaz urrengorarte.

ANA MARI.

ELGOIBAR

Autu.—Jun zan astian Deuna Kalare eleizatxuan egin ziran abaderako autezkundian "elecioñuak" aurrerako auturik Sorroena Enkarnazion, Larrabetzu Bizkai'ko alabea. Auteskundia aun egin zan Aita Rekondo eta bere idazlari dan Gibert Aita josulaunak.

—Baita egin dira lekaime etxe ortan, bertan urrezko eztaiak "Sor Josefa de San Franzisko de Gisasola" deitzen dioten opaz berau Markiña'ko alabia da. Jai au dalata eleizkizun ederra egin zan jai au oopatzeko eleizatxuan. Bertako leikaimiak oso ederki abestu zuten "Fons Bonitatis" jaupa, emaitzallia bertako kapellan dan Zubetan Julen, laguntzale Kanpos Saturniña, eta Onandia Keperin "Zelestino" itzaldia berriz "Jakiña oso ederki" gure jaupari elgoibartar opakua Estanislaok. Arratsaldiai alako edari gozuoekin opatu zituzten uriko apaiz gustiori, lekaime gaixoak.

—Jun zan igandian urtero bezela, egin zan Miren Agurtzako jaia, eleizkizunak oso ederki egin ziran, batez ere itzaldi ikaragarria berau "ez dakit zelan autortu" guztiak diote oso ederra. Pozten gera benetan, neretzako atsegingarria izan zalako eta danari beria emen bear zaio baña orrelakua noiz aituz berriro...? Goikuak daki... eta berau egin zuana zan Onaindia' Alberto, Saturrarango irakaslia, Jaungoikuak laguntzen baizagu gaur arratsaldien Udal gizon, eta eresbatzakun, or yuango gera, eta eibartar anaiak gu ongi aitu, Ama Arratekua lagun dizutela, arratsalde arte Goikuak lagun.

—Jun zan larunbatean uztertu ziran Mendaro "Garagartza" eleizan, Uranga' Joseba Imanol, Azkoiti'ko semia, Arriola' Miren Gotzane, Mendaro'kuakin. Zorionak eta luzaro bezi alkarrekin.

—Larunbatian egin zian eleizkizunak txadon nagusian, Sodupe' Jon, Buenos Aires'en ill zanaren animaren gogo alde "Goian bego". Laguntzen diogu atsegabian bere gurazo eta gure lagun dan bere aita Erremoni.

—Ostegunian ugurutzau zan txadon nagusian Dabid Ferreri' Jon eta Ibargutxi' Zelestine'ren semetxo bat "Imanol" euskel izen ederra ezarri zioten ¡zer gauza ederra! Prantzes batek euskel izenen jarri eta euskaldun askok, lenago auzo errietan abertzaliak izan du eta ez dakigu, zeñen bildurrez emaztiana edo beste auzokuena, izena jartzen diote Maria Lurden, Maria Begoña eta abar ¿euskal erriak artuko al ditu semetzak ume onek? ez det uste! ez da bearrera, aita olluen errua da ori, baña, erru orrek noiz baten, ordaindu bearko ditue gurasuok esaera dion bezela Euskalerri Jaungoikuarentzat eta Euskera euskaldunentzat".

—Datorren igandian ezkondu dira, Elgoibarko seme dan Altuna Imanol, Iriondo Agustine, eibartar neskatilla politarekin. Aurren zorionak.

—Gaur igandez, goizeko amaiketerdietan izango da merkatu plazan bere biziko itzaldia, agintariak aginduta eta emengo Eusko Langillien Batzokiak autondu ta Eusko langilliak eta beste guztiak. Gaur merkatu plazara, eusko langillioei itza aditzera. Bertan jarriko da Barakaldo'ko Altos Hornos'etan galdu diran ,gizonen sendiaren alde arpidia, eta guztiok lagundu.

AIXERIXA.

GERNIKA

LIZARDI'RI

Zeuk asmauriko "euskel-idazleen batzarra"-ri ondo deritxat eta neure laguntasuna izango dozu al dodan eran euskera-alde lan egiteko.

Baita gaurko EUZKADI'n Arriolak aitatuten daben batzar erriari be ondo deritxat, guztiontzat egoki-egoki dagolako.

Atondu ba zertzeladok eta urtazkena orduko deitu guztioi, gor egingo diranak gitxi izango dira-ta.

SANGRONIZ

Sangroniz edo Zangroniz deritxon basetxiak nun ete-dira?

Geure adiskide on baten itauna dogu auxe.

Iñok baleki, esan begizku. Eskar-sor geratuko gayakoz.

URRILLAKO ASTELENAK

Biar, astelenez, urrillako azkenengoa dogu, eta igaro diran bietan lagun larregi ikusi eztogun-arren, biarkoan nun sartu eztakiela, ara eta ona dabilzan asko eta asko izango dira.

Geure erri onetan ederto jaten dalako entzutia ludi guztian ondo zabalduta daukagu eta eguberdi aurretik datorrenak, eztau utsik egingo. Gañera eguberdiko amabietan geure Eresbatzaren jo-aldia be izango da.

Gañera, arratsaldera ezkero nun jolastu ezta paltako:

Orcu bietan Irudi andiak eta Buru andiak, euren zanitzalle Gargantua aurretik dabeela, kalerik-kale ibilliko dira.

Lauretatik amarretara, jantzia, Jon deunaren egurastokian. (¡Zikiña eta lotsa galdua ugari izango dira!)

Lauretan eta zortziterdietan pelota partiduak. eta baita ziñea be.

Gernika su-burdiak eta Azkarreta, Gabiola eta enparauan bilbelak joan-etorriak ugari egingo dituez.

¡¡Etorri ba guztiok!!

KISPIN DEUNA

Atzo illuntzeko kanpa-otsak eta gaur goizaldeko "dun" badak eta txillin-otsak, gaur Kispin deunaren eguna dala aciera-soten emon dauskue.

Amarretan meza nagosia eta arratsian apari orokarra izan dabe, zapatariok.

MIXIO-EGUNA

Igndean ospatzen da erri onetan Mixio-eguna.

Goizean Jaunartze orokarra eta meza nagosia, eta arratsaldian ibildeun ederra izango dira. Ibildeun onetan berarisko jantziak ugari atarako dira. Etxe askotan zeñek ederragoak egin, bear bada, ibilliko dira.

Jantzi eta erakusketa oneetan oncatzen dan dirua bilda, ta mixiolariai emotea, obeto izango litzakela uste dogu, baña mundutarrok ezer emongo badogu arrokeriaren bitartez emon biar dogu-ta...

Dana dala, jayok autolatzen dituezan jaun gurgarriok, guk baño geyago dakie, ta zer egiten daben ondo jakingo dabe.

ANDUTZ MENDI

Igaro zan igandian emen agurtau gendun, geure aspaldiko adiskide maite dan Etxeberria Ander, "Andutz-mendi" euskel-idazle argia.

BELU-MENDU.

GETXO - NEGURI

YOAN ETORRIYAK

Karrantza'n gun batzuk igarota etorri da barriro geure artera Deun Iñaki txadonako jaupari Arteta' Endika jauna.

Medina de Pomar'etik geure adiskide Uribarri Josu bere emaztiagaz.

Medina de Pomar'era joan da Uribarri' Josu'ren ama giñarrabia.

Geure artian egon da ordutxu batzutan geure adiskide maite Bayona'ko salerosle San Sebastian' Erramun.

"JAUNGOIKO-ZALE"-RI IKER-TALDIA

Illonen amabi garrenian yoan giñian Zornotza'ra neure adiskide Albitzu' Emili ta neu, "Jaungoiko-Zale"-n irarkolea ta etxea ikertuten. An egon giñian Artzubiaga' Kuiril jaunagaz ta Enbeita'gaz. Pozik biurtu giñian egin euskuben arrera ona gaitik.

Oneik "Jaungoiko-Zale"-kuok lan oso onuratsua egiten dagoz bai uskurtz alde ta bai euskerearen alde, ta tamalgarriya da euskaldunok eztautsogulako emoten bear dan laguntasuna ,oraindiño asko geyago egin barik geratu biarra. An egiten dira eleiz orriyak ta idazti oso politak, euskera argi ta garbiyan, ta beste gauza asko, danak lan ederrak.

Esan euskun Artzubiaga jaunak euskalerri guztiyan aneiren bat bazkide baño eztaukozala "Jaungoiko-Zale"-k ta gauza lotsorra da ori, gitxienez bost anei euki biar leukozanian, anei baño ez eukitia.

Egia da esan euskun, astiro astiro baño ezpada be, gorantza doazala, ta gora doan artian eztago txarto, baño ondiño gorago asko egin biar dau, danok artuten badogu biar dan arduria.

Oneri bazkunori emon bear dautsogu laguntasuna euskaldunok. Ondo txindi gitxi gaitik ixan litzake "Jaungoiko-Zale"-ko bazkide. Zortzi laurleko urtian ta agindu-ten dabez illian aldizkingi bi, ori da amabostian bat, eta urtian idazti bat edo beste, onuratzuak benetan. Zer gitxiago ordaindu lei, ain gauza ederrarentzako?

Euskalduna nlaguntasuna bear dabe oneik aldizkingiok eta beste euskalerriyan dagozan askok. Onela geyago ta ugariyago, ta baita garrantzitzuago be urtengo leuke, baña orretarako zoriyoneko txindiya bear da, ta ori geuk emon biar, geuk emon ezik ezta erbestekua etorriko emoten ta. Edozein tentelkerirako beti gagoz gertu laurleko batzuk eralgiteko, ta garrantzi dun gauzatarako urri, oso urri.

UDAGOYENA

Orain arte ederra eui dogu, baña orain asi da eguraldiya negu antza artuten.

Zugatzak mostuten asi dira erri onetan be, eguzkiya obeto sartu daiten inguru guztiyetara.

Itxasoa be asarratuten asi da, gaur beintzat oso asarre agertu yaku, oleatu ikararagarrietakuakaz. Arrantzale ta itxas gixon gaxoentzat ezta au ona. Arraiñia urri egongo da emendik aurrera onelako eguraldiyakaz, urri ta dagoan apurra garezti.

Laster datoz egunak etxeko zukondoan sartu ta ipuiñak kontetan astiya emoteko. Ze axe otza ta indartsua ta gañera euriya badir , aro txarra ixaten da emeko txaidietatik egurastuten ibiltia. Alan ta guzti be badagoz batzuk Galea'raño yoaten diranak. Onentzako domine edo medalla bat sortu biarko dogu.

ALANGOKO BAT.

IZURTZA

NASKALDIA

Astelenian juan zirean Gazteiz'era Bilboko bigarren alkate edo endore dan Ortiz de la Riva Joseba Mirena eta Garzia Salas Erramon.

EGURALDIA

Betosko illunagaz jarri da egunokin eguraldia euri naikuagaz busti ditu ondo zatibaterako solo eta baso lurrak. Eurite onek onura onek ekarri ditu gure Arbizola Olako langilliari be. Aspaldian ibili dira ur legortiagaitik biar dau legez lanik erakutsi ezinda. Jaunari eskerrak ardura bat kendu izan dabe euri ugari onegaz.

ZUGATZAK BOTATEN

Garzia Salas Erramon'ek Ortiz de la Riva'ri erosi dautzan baratzan eta emen egon dirian urte askoko zugatzak botaten diardue lenengo zaldunaren langilliak. Agiri dabe ola edo zul geia eta egurra ugari zugatzok.

OSATUTA IA IA

Gaur ikusi dogu eguzki epela artzen, ille bi terdi onetan ogeratuta geixorik egondau Gerediaga Imanol, argiñen kontratistia. Asko poztuten gara Imanol, eta kontuz ibili.

La próxima Página Agrícola se publicará el día 9 de noviembre

y en ella publicaremos artículos de gran interés para nuestros labradores y para todo aficionado a la agricultura

Lector:
Difunde entre tus amigos estas páginas de interés material. Ellas pueden ser la ocasión para hacer brotar en sus almas el afecto a todas nuestras cosas, aun las más elevadas.

GELDI ALDIE

Aspaldian, obeto esateko urtiokaz eztaukagu euskera edo Euskal erriagaitik lan egiteko itxurarik. Oin amabots ogei urte dirala, Bilbo'n eta beste uri batzuetan, sarri izaten giñan batez bere igandietan Euskel Antzaki (Teatro Vasco) ikusten zeñetan azaltzen zirean "Peru Gixon", "Anboto", "Maitena", "Eguzkia nora", abar eta abar Naparrak Gipuzkoarrak eta Arabarrak ere eusker alde lan aberkoiak eta guztiz txalogarriak egiten diardue, erri batzuetan euskeljaiak eta berba-aldiak. Eta Bizkaian, zer?...

GURPEGI.

MAÑARI

YOSUKISTO'REN ERREGETZA

Gaur, Kisto'ren Bakalduntza eguna dala ta, ludi guztiyan yai aundi-aundiya da. Euzkeldun guztiyok be Kistoren egun aundiyau osoatu daigun eta al-dogun bestian goratu daigun geure benetako Errege bakarra; ta Bere oñetan auzpaztuta aintzaldu, gurtu ta onetsi daigun.

YUAN-ETORRI

—Emen aldi luze bat igarota eguaztenian eta eguenian yuan ziran Bilbo'ra Kamiruaga' Basili ta bere emazte Madariaga' Nikasi, Llano' Imanole ta Kortina' Kistine.

—Melilla'n eta Zeutan gudaritza eginda etorri ziran Goiti' Sabin eta Sarobe Domeka.

—Asu'tik etorri zan Goiti' Ander.

—Artia Arratia'tik Gorostitza' Bedita ango txaunburu yauna.

—Elorrio'tik Lete Lonetxu.

—Eibar'era yuan ziran euren alaba ta arreba Margarite ikusten Garate' Bitorene ta Bereinkua' Mikel.

GAZTAÑAK-MOTAK

Aspaldiko urtietan gaztaña-zugatz asko igertu dan arren, emengo basuetan oindiño zugatz asko dago ta ainbat motako gaztañak egiten dira.

Ze motako gaztañak diran zugatzian, orriyan eta garaunian nekez igarten da. Daukien bardingetasuna oskolian dauen ezkero, oskolduta gero errazen igarten da. Ona emen oskol moteen izenak.

"Irukiye", "Uleberie", "Yolepetxa", "Kiputze", "Karraskillie", "Probintziarra" ta abar.

Geiyen dauen motie "Yolepetxa" da, ta gozuena "Irukiye".

Gaztaña geiyenak batu ta etxeratu dira; asko be asko egonda, ba izan dira basetxe bat baño geiyau eun zorro aundi oskol baño geiyau etxeratu dabezanak. Baserritarrentzat negureko lagungarri andiya izaten da.

URTSULE DEUNA'REN OPAZ

Gomutan eztan alditik ona Urtsule Deuna'ren eguna erri-onetan yai izaten da. Goizian yaunartziak izan ziran Deunaren opaz. Amarretako meza nagosiyan Urtsule Deuna'ren bizitza ta eriotza Bizkarra' Bedita abade yaunak azaldu eban; gero amaikeran Deuna'ren gorpuzkiña gurtu zan. Arratsaldian Agurtza ta ibildeuna egin zan.

Baita arratsaldian gaztiak be dantza garbi ta aurreskuak egiñaz ederto yolastu eben illuntzirarte.

YAZORIKUA

Lengo urte baten, emengo mutil gazte batek goizian-goiz urteeban etxetik albo erri bateko yaire.

Arkondara ta praka zuri garbiyakaz orratzetik-ara yoian yantzite; gorputza ain dotore ta txukun ikusita, bere buruaz siñistu eziñik, berekautan esaten eban: "Ondo dotore naiyauk ba; orraitik gaur ni lango asko eztok egongo". Oldozkun oneekaz poz-pozik yoiala bidiaren erdi inguruan asto txiki baltz bat aurkitu eban, eta astua aurrian eta bera atzian bide luzian yarraitu eban. Alako baten astuak aize bat bot eban, eta mutil dotore eretxiyaren arkondara ta praka zuri garbiyak pekotz ziriñez zikindu ziran.

Bere soñeko yantzi garbi txukunak ainbestian zikinduta ikustian "erromeriyok" aztuta etxerantzako bidiari emoutsan; eta bidian aurkitzen zituan lagun eta aizkidiari lotsaren-lotsaz agur ostaz egiñaz eldu zan etxera; ta yantzi barriyaren ordez beste zar garbi batzuk yantzi zituzan.

CEMENTO PORTLAND
"ZIURRENA, S. A."
(EL MAS SEGURO)
Propiedad de la Sdad. marca "Cangrejo"
FUEROS , , TELEFONO 12 [illegible]

URALITA
Gran Vía, 5, 1.º—Teléfono 11079

Ganeko eguneetan, auzo ta aizkidiak sarri be sarri entzuten eben mutillaren abotik yazokun au ta urrengo esakun au "Gizon arrua Yaungoikuak ziyortu".

Ordutik aurrera garbi ta apaiñ yantziten gazan be, lenauko arrokeri ta buru eretxkeri iguingarririk iñok ezeban beragan susmetan; beti apal-antzian ibilten zan.

Batzuetan, gauzarik txikiyenetan onibderik andiyenak ikasten dira.

"ALGORRI"-RI

Itxas-antsarrak igaro dirala ta, negua urreratuaz datorrela diñozu. Geuk be alan uste dogu, beintzat, aspaldiyen euriye ta otza ugeri dagó.

Negua ondo igaroteko egualdiyari aurretik igarri ta neurriyak artzia langorik ez-tago. Orregaitik emen gaztaña-zale asko dago; ta gaztaña erriak yan ostian danak izaten dira "astronomo" itxelak; bateko ipar-aize ta besteko ego-aize, ekatxa nondik datorren arin igarten dabe, ta turmoiek zarataka asi orduko laster neurriyek artu be.

Orregaitik be "Algorri", osasun-bakiar egualdiyari olango neurriyak artu ezkero, eztau negua txarto igaroterik.

MAÑARIKO.

OIARTZUN

Martiarena Jose eta Xegundo bere semia Ameztoitakuak aste beten buruan ill dira, baita Ameztoita berriko amona ere. Esnaola jaunaren eriotz-berriak ere asko naigabetu gaitu. Zenbait aldi erri ontan igaro ditu. Ama ere Oiartzuarra baitzen. Otoi beren gogo alde (G. B.) Gantzaiain Rejino sendagillea oso pizkortu da. Zorionak.

Lengo astean emen agurtu dogu Oiartzuaz Aita Jose Maria Errenderiko Prantziskotarrai itzaldiak egitea etorri ta.

Belderrain Jose Krutz apaiza ere emen izan da Aranburu Leontzio eta bere emaztea Bartzelona aldera juan dira. Ongi ibilli.

ENARA.

ONDARRUA

OSABA BI OSABA

"Zar Zale" euskeltzale zintzo eta adiskide maitea: Zuk diñozuzan bi itzok osaba eta bi osabak zer oldoztu emon deuste eta batari itandu eta bestiari itandu (ondarrutarrei, e?) ez deuste iñork be gauza garbirik esan itz orreitatik bigarrenguagatik. Lenengo itza badakigu eta asko ibilten dogu au miñian oncarrutarrok baña bigarrenguori nik ez dot iñoiz entzun eta ezdot uste ondarrutar batek be entzungo ebanik zegaitik itz ori ez da ezagutzen Ondarrun'n Iñork entzun badau "Txori-Errekak" entzungo eban eta berak erantzungo leuskizu iñok baño obeto.

ARTIBAI.

USANSOLO (Galdakano)

Gaur, larunbatez, ezkondu dira Galdakao'ko eleiza nagusian gure adiskide ta euskeltzale on diran Intxaurza' Yon eta Basaldua' Yone. Zorionak, eta urte askoz bizi ditezala alkarregaz pake onian.

ZEANURI

JESUS ERREGEAREN YAI ANDIA

Andikiro ospatuteko ustea dago igandean egunori goxian Yaun artzen lagun asko izaten da egun orretan. Arratsaldean ibildeuna Andra Mari elexatik beko elexara da abestik egunari yagoko zanak ikasten dabiz.

ELEIZ ORRIAN IRAKURTEN DA

Egun orretan Ebanjelio bi dagoz, bata yaveri yatorkona ta bestia igande edo domekeari, domekearena mezearen azkenin irakurriko data diñosku andiki batek deutsala Jesus'seri il zan bere alabea biztuteko ta bidean yoyala amabi urtian gexorik egoan andra bat osatu ebala vantziari ukituagaz beste barik (M 9, 18-26).

Yaveri toketan yakon epistolan diñoski Pablo deunak Jesukristo gauza guztien agintzea daukena dala, bera dalako zeru ta lurraren egillea ikusten dirian eta ikusten ez dirian gauza guztiena, bere odolagaz erosi genduzana, zeru ta lurragaz bakea egin zituana.

ERIOTZA

Emilia Enean yauregian eguen goxean il zan 85 bat urtegaz Moyua Emilia andera, Roca Verde marquesea. Barikuan amarretan egin zan obiratzea. Atsekabean lagun-tzen deutsegu sendiari da otoitz bere gorearen alde.

ALTZETAR BAT'I

Euskel eguna egin biar litzakela diñozu "Villaro"n ze galduez doyala gure izkuntza ta, orregaz ezagoz txarto; baña eztakigauz onik egin leiken or, umiok beintzat erdera utsean dabiz beti, da axe guztiak erderakoak dira, ai... udaldean urietatik datozanak da eztatozanak; berton bizi direnak be baroin geyenak.

TXISTULARIAK

Ementxe oraingoan zeozer urteblar dau Rekagorri 14 urteko mutikoak da Ibargutte-soñue", "Iñaki", "Danborradea", "Altxi 11 urtekoak ederto joten dabe "Alketa San Migel", "Urtiagan Fandango" ta "Artzaña"-na ta abar da orain silbo bat ekarteko ustea dago. Ia ba, banda osoegun batetik bestera ipinten bada.

¡Benetan gauza ederra da errien onango gauza bat aukitea. ¡Aurrera ba, atsegiñez belarrietan soñu gozatsuak entzuten dogozan tetelkeriak baztertute.

EZPATADANTZARIAK

Oneik be ikurrin da ezpata bearrirenian aurkitzen dira baña gogatsu dagoz aurrera yarraitzeko da txistulariakaz batera lastersua atara bir eidade. Tire ba.

✤ ✤ ✤

Igandian pelota yokorik izango ete da? Batzuk bayez diñaude, agertuko dirala batzuk yokatuteko. Galdakano ta Zornotza'koak edo.

BASERRITAR BAT

LICENCIAMIENTO

En el cuartel de San Francisco

Ayer fueron licenciados 380 soldados de cuota y 790 de haber del regimiento de Garellano, de guarnición en esta plaza. Con tal motivo tuvo lugar en el cuartel de San Francisco una fiesta, durante la cual el coronel del regimiento dirigió la palabra a los soldados licenciados en virtud de la real orden última dictada al efecto. Contestó al coronel en nombre de los soldados licenciados el sargento Gabino Pérez, de cuota.

Al acto asistieron los jefes y oficiales del regimiento y varios invitados, todos los cuales fueron obsequiados con un lunch.